

Prentsa oharra

Nota de prensa



Garapen Ekonomiko
eta Enplegua
Desarrollo Económico
y Empleo



URTEBETE AMARAKO IKASKETEN PLAZA BERRITZEKO

Irailaren hasierarekin batera hasi zen Ikasketen Plaza berritzeko obra, Amara auzoan.

Marisol Garmendia Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak adierazi duenez, "lanak urtebetez luzatuko dira, eta posible izan dira plazako garajeen jabeekin lortutako akordioari eta inplikaturako alderdiekin adostutako diseinuari esker".

Gaur egungo plaza aparkalekuak eta ibilgailuen joan-etorriek menderatzen dute, itxura zaharkitua du eta haurrentzako jolasgune txiki bat da, ia erakargarritasunik gabea. 3.200 metro karratuko plaza da eta bere irudia goitik behera aldatuko du.

Proiektuak 700.000 eurotik gorako kostua du, eta, bertan, egoiliarren garajeetarako ur-iragazketak konponduko dira, egonaldi berriak sortuko dira, haurrentzako parke berri bat eta auzoetako giro bat, merkataritza eta ostalaritzako lokalekin.

Herritar guztientzako irisgarritasuna eragozten duten egungo oztopoak ere konponduko dira; izan ere, egoteko eta jolasteko espazioa plataforma garai batean dago galtzadarekiko, egoiliarren aparkalekuaren gainean. Bi arrapala aldapatsu jarriko dira, eta gune goratu horrek harmaila moduko sarbideak izango ditu, banku gisa ere erabili ahal izango direnak.

Prensa oharra

Nota de prensa



Haurrentzako jolas-elementu berriak eta erakargarriak ere jarriko dira, baita lorontziak ere, beste auzo batzuetan gertatu den bezala, garajeetako aireztapen-irteerak ezkutatzeko balioko dutenak. Hiri-altzari guztiak berritu egingo dira.

Plazaren gainerako zatiari dagokionez, aparkalekurako egungo bi sarbideen ordeztuz, inpaktu txikiagoko beirazko bi egitura jarriko dira, eta plaza zeharkatzen duen errepidea oinezkoen zirkulazioarekin batera egingo da, aparkaleku-plazaren kopurua ere murriztuz.

Obra Campezo enpresari esleitu zaio 704.258 euroko zenbatekoan eta 12 hilabeteko exekuzioan. Berrikuntza hori Amaran azkenaldian egin diren jarduketari gehitu behar zaie, Antso Jakitunaren eta Isabel II.aren espaloi berriei.